

## **Ardien eritasunak**

E.: eta xure denboran, xure artzain denboran, mutil izan xirelarik, eta gero xuaun kundu, artzain izan xirelarik, eritasun berezirik eta izan dea? Izurriterik edo...

B.: ordian ez, ordian ez, ordian ez zen olako eritasunik deus e ikusten, ardia sanoo zen oai bano, ez dakit zendako, guk ukan duuna oai galaxia ori, oai or Iisarri ta Hazparne, ba... Iisarri ta emen, Iholdi ta or beita berriz sartia, joan den urtian asiik, ori bein ukan ginixin emen.

E.: zein urtetan?

B.: ba, ni ez niz ez oitzen oai, puf, ez dut errain, ez dakixut. Aazten txit nik orik denak, bear litazke markatu.

E.: ez zena ori... Ez zena Galaxia deitzen ori ordian?

B.: ba, ba, Galaxia, ba, ba.

E.: ez zena Hezurritea edo olako zerbait erraiten?

B.: ba, ba, ez zuxun oai bezala re, oai bano gaxtogoia zen ordian, erortzen zitxun ardiak, xutik ezin egon, hezurak goortiak eta, oai ez da ala re, oai esnian ta arrapatzen dute eritasun ori. Ah, ordian ementxe, ementxe bazen gure ondo untan, gure ondo untan artzain bat berdin hamar-hamost bat bazitin, ats guziz sartzen zitien, besotan ateatzen zitien kanpoat goizetan, ondo ortan alatzen zin puxka at, ta geo barnian emaiten bazka puxka at. Besotan, xutik ez zien egoiten, guri urte artan, ta hemen denek batian ukan ginien itzuli untako artzaiñek denek batian, eta hiltzen, anitz ardi hil zen ordian, flakatzen zien, hezurretaik min, ta flakatzen, ta ordian memento artan an nitxin nik Xuberan, eta ardiak... Zera... Auzo atek emen artzain... Ortze, urruno, xubeatar batek abertitu nindien: “ah, an auzo atek ez duk kontent, erran diakouk zerraailiak artia ziila, eta erran diakouk araiz ez duk hartuko hain ardiik”, eta hak abertitu bainindien. Geo bestea joan zen, emengo at, enekin ilia baitzen, ua ta, erran zakon ak: “bon, eta han baute Galaxia eta nik main dauzkitziet ardiak, hak ez baitzuten ono hor, Lekunberriko batek, eta joana zen eni hitzik erran gabe, eta hak erran dako, anbaste urte artan enekilan ai izana, eta ak erran dako: “nik ain berrik gabe ez diat deus e in nai, aski uk hik jitia antik, ni jien nuk ementik Xuberratik. Jin zien, ta ni bestiak abertitia bainindien, erran nakon, jin zien biak, ta: “bon aurten nola uk? Nik arrapatuko diat lekia, bana eldu den urtian nik bear diat berriz e aat joan”. “ah, ba, ba, ba, bon, ixtoria luze da, bana ordian ondoko urtian berriz e eni hitzik erran gabe joan zen, ta han gizonak nai zitien nausiak ene ardiak, eta etxekanderiak, berriz, hainak, hak eman baizitin bere tropako hobeen guziak. Guriak, aldiz, heldu zien bezala zien, goixtiarrak eta beantxogokuak eta ola. Berriz abertitzen nu hak eta hola zela han, senar-emaztekilan elgarren artian bazutela hor zera, ta are, emen artzain unek, artzain batek

beitzien otoa, ta “joan bear diau”, ta han ikusi nitien hotx-otxa ziela, ta nik e, azken urtia ola in ginien. Nik erran neen: “so izie, harzkitzie berroita bost ainak eta beste berroita bost eniak, ta hortan in ginien tratia, ara. Gero berek zarri ziuzen ardiak, erosi ziuzen berek.

E.: urte batzuz zaila izan da bazken atxemaitia? Ukan dituzu zailtasunak memento batez?

B.: oai, oai, oai.

E.: azken urtetan?

B.: oai da arrunt zail, neok ez du nai artu gure ardik geio, denbora atez... Denbora atez, hori re bea ut erran, Aroue, Arüe, nun Aroue.

E.: Donapaleu ondoan.

B.: ba. Delako urte artan, nik galdin eta nor gerta... An zarri nitien, ez zen astian bezenbat, gutio zen ardi re. An atzaman gindien lekia, denak haat ereman, eta flako eonak zien ardiak, eta negu artan berian sendatu zien gure ardiak, in zuzten bildotsak, eta hor sendatu, primaderako denak untsa, profitatu zuten, ta oai, aldiz, hiru urtez ez gira libro ori duten... Bortura jitea re ez dira libro, ara, ez delaik ordian bezain gaxtoa Galaxia ori, ara, nik ez dut deus e konpreintzen, ara.

E.: ta leeno ez zen xartatzen, ez fitsik.

B.: ez zen iten, ez.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala